

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak INNPACTO azpiprogramari dagozkion laguntzak emateko 2012ko deialdia egin du, **Sistema Antolatze eta Nazioarteko Bihurtzeko ildo instrumentalaren barruan**, Ikerketa Zientifikoaren, Garapenaren eta Berrikuntza Teknologikoaren 2008-2011 aldirako Plan Nazionalaren esparruan.

([BOE, 2012-06-22koa](#)).

Interneteko helbidea: [Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa](#)

Deialdiaren helburua:

INNPACTO azpiprograma finantzatzea. Azpiprograma honen helburua ikerketa erakundeen eta enpresen arteko lankidetzaren proiektuen sorrera sustatzea da, izan ere, I+G+B proiektuak modu bateratuan gauzatuz, jarduera berritzaileak sustatzen lagunduko da, inbertsio pribatua mugiaraziko da, enplegua sortuko da eta herrialdeko balantza teknologikoa hobetuko da, eta erakunde onuradunek Europako eta nazioarteko proiektuetan parte hartzea ere bultzatuko da.

Proiektuen ezaugarriak:

Laguntzaren xede izango diren proiektuak garapen esperimentaleko proiektuak izango dira eta ondorengo baldintzak bete behar dituzte:

- Gutxieneko aurrekontua: 500.000 euro.
- Jarduketak urte anitzekoak izango dira, proiektuaren zati bat 2012n egin behar da, **eta 2012rako laguntza eskatu beharko da**. Gutxienez 24 hilabete eta gehienez 2015ko abenduaren 31ra arte iraungo dute.

Partzuergoaren ezaugarriak:

- **Eskatzaileak enpresa** bat izan behar du (ezin dira eskatzaile izan enpresa elkarteak).
- **Bi parte-hartzaile gutxienez:** enpresa bat eta ikerketa erakunde publiko edo pribatu bat.
- Entitate bakoitzaren **gutxieneko partaidetza:** proiektuaren guztizko aurrekontuaren % 10 edo gehiago.
- **Enpresa partaidetza** (enpresak + enpresa elkarteak): proiektuaren guztizko aurrekontuaren % 60 edo gehiago.
- Entitateek ezin dute proiektuaren aurrekontuaren % 70 edo gehiagoko partaidetza izan.

Onuradunak:

- a) Enpresak
- b) Estatuko teknologia zentroak
- c) Estatuko berrikuntza teknologikorako laguntza zentroak
- d) Unibertsitateko ikerketa eta garapeneko zentro pribatuak
- e) Irabazteko asmorik gabeko ikerketa eta garapeneko beste zentro pribatu batzuk
- f) Ikerketa erakunde publikoak
- g) **Unibertsitate publikoak**
- h) I+G-ko beste zentro publiko batzuk
- i) Irabazterko asmorik gabeko beste erakunde pribatu batzuk.
- j) Beste erakunde batzuk
- k) Enpresa talde edo elkarteak

Eskaera aurkezteko epea:

2012ko ekainaren 26tik uztailaren 17ra, 15:00ak arte.

Eskaera egiteko prozedura:

- 1.- Azpiprograma honetarako eskaerak Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Interneteko helbide honetan aurkeztuko dira: <https://sede.micinn.gob.es/innpacto/> .
- 2.- Entitate eskatzaileak proiektuaren alta egin beharko du, haren oinarrizko datuak adieraziz eta entitate parte-hartzaileen alta eginez. Proiektuaren mugarriak ere adierazi beharko ditu, parte-hartzaile bakoitza bere mugarriekin lotuz.
- 3.- 2. urratsa egin arte, entitate parte-hartzaileek ezin izango dute aplikazioan sartu.
- 4.- Proiektuko entitate parte-hartzaileen alta egin ondoren, entitate horiek beren partaidetza datuak osatu beharko dituzte eta adostasuna sinatu beharko dute (UPV/EHUK parte-hartzaile gisa bakarrik parte har dezake, beraz, uztailaren 16rako sinatuta izan behar ditugu partaidetza adostasun guztiak).
- 5.- Entitate eskatzaileak agintzen diren dokumentuak erantsi beharko ditu (memoria teknikoa eta lankidetza akordioa erantsi beharko ditu), eta laguntza eskaera sinatu eta **ERREGISTRATU** egin beharko du.

Informazio gehiago:

Deialdi honetarako eskaera egin nahi duten ikertzaile guztiek hala jakinarazi beharko dute, lehenbailehen helbide honetara idatzita: aingeru.magarinos@ehu.es .

Kontuan izanda deialdia zein egunetan egongo den irekita (udako oporretan), mesedez, jarri lehenbailehen Aingeru Magarinosekin harremanetan.

Eskaerak sinatu ahal izateko lankidetzak hitzarmena egin behar da eta ez da adostasun dokumenturik sinatuko Ikerketako Errektoreordetzak hitzarmen hori ontzat eman arte.

Eskaera aurkeztu ahal izateko, nahitaezkoa da elkarteko kide guztiek parte hartzeko adostasun dokumentua sinatzea. Hori dela eta, ez da komeni parte hartzeko adostasun dokumentua eskaera epearen azken egunera arte sinatu gabe uztea, sinadura elektronikoen ziurtagiriarekin egon daitekeen edozein arazok eskaera aurkezpena blokea baitezake.

Proiektuan parte hartzeko adostasun dokumentuak eginda egon behar dira, Ikerketako errektoreordeak **uztailaren 13a baino lehen** sina ditzan. Halaber, **eskaera osoa eta memoria ondorengo helbide elektronikora bidali behar da: convocatorias.dgi@ehu.es (ezinbestekoa Ikerketako errektoreordeak partaidetza baimena eman dezan).**

Eskaera betetzeko, erakundearen (UPV/EHU) datu hauek behar dira:

IFK: Q-48/18001-B

Helbide soziala: Sarriena auzoa zk.g.

Posta kodea: 48940

Herria: Leioa

Legezko ordezkaria: Miguel Angel Gutiérrez Ortiz

Kargua: Ikerketako errektoreordea Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren web orrian agertzen diren ohiko galderen atala irakurtzea gomendatzen da.

UPV/EHUko harremanetarako pertsona:

Aingeru Magarinos

Tel.: 94 601 80 08/ 94 601 52 81

Helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.es / aingeru.magarinos@ehu.es

Faxa: 94 601 58 56

Harremanetarako (MINECO):

[Información y Atención al Ciudadano](#)

Helbide elektronikoa: innpacto2012@mineco.es